



Esp. kodea: 2022DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2022/11/30

Arau fiskalen kontu-hartzailletzaren txostena

Aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuaren betetze-mailaren ebaluazioa, 2023 ekitaldiko aurrekontua onartzean.

Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, bai eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan eta Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloan finantza-tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauan xedatutakoa ere, honako txosten hau egiten dut :

1. Aplikatu beharreko legeria:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloko finantza-tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzeko foru-berezitasunari buruzkoa.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, aurrekontu-egonkortasunari buruzko 18/2001 Legea garatzeko erregelamendua onartzen duena, toki-erakundeei aplikatzen zaien heinean.
- HAP/2015/2012 Ministro Agindua, urriaren 1ekoa, azaroaren 7ko HAP/2082/2014 Agindua aldatutako LOEPSF (OM) legean aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituena.
- 2223/96 zenbakiko Europar Batasunaren Erregelamendua, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemari buruzkoa.
- 3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki-erakundeek 2023an aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloan aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

I. Aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzea

A) Aurrekontu-egonkortasuna betetzea

1/2013 Foru Arauaren 2.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren esparruan egin, onartu eta gauzatuko dira, Europako araudiarekin bat etorritik.

Kodea	CL22/17986	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./06	CUDO	000.0055.AAAAXBHF.C.H8Qx
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXBHF.C.H8Qx		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp. kodea: 2022DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2022/11/30

Toki-korporazioentzat, administrazio publikoen sektoreko kide diren aldetik, aurrekontu-egonkortasuntzat hartzen da egiturazko oreka- edo superabit-egoera, eta horrek esan nahi du haien baliabide arruntek eta kapital-baliabide ez-finantzarioek nahikoak izan behar dutela gastu arruntei eta kapital-gastu ez-finantzarioei aurre egiteko.

Hala ere, azaroaren 8ko 3/2022 Foru Dekretu-Arauk, Gipuzkoako toki-erakundeek 2023an aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloan aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoak, 1. artikuluan aurreikusten du 2023ko ekitaldirako arau fiskalak etetea, eta honako hau ezartzen du: «Aparteko izaerarekin eta 2023rako soilik, etenda deklaritzen dira Gipuzkoako toki-erakundearen arau fiskalak». Horrek esan nahi du aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak indarrrik gabe uzten direla, eta ez dela gastu-araua aplikatzen urte horretan.

Aurrekontu-egonkortasunari dagokionez, 3/2022 Foru Dekretuaren 2. artikulua adierazten duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei berari esleitutako defizit-helburuaren % 40 lagako die, eta udalen defizit indibidualaren helburua arestian adierazitako defizit globala Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren kuoten proportzio berean banatuta zehaztuko da. Arrasateko Udalari 2023ko ekitaldirako dagokion banakako defizita 323.134 eurokoa da.

B) Txostenaren beharra

1463/2007 Errege Dekretuaren 16. artikulua arabera, Tokiko Kontu-hartzailtzari dagokio Osoko Bilkurari txosten bat aurkeztea egonkortasun-helburua betetzeari buruz. Txosten hori independentea izango da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aurreikusitako gainerakoetan sartuko da, aurrekontu orokorra onartzean, haren aldaketetan eta likidazioan. Txosten horretan zehaztuko dira aurrekontu-gastuen eta -sarreraren egoera-orrietako 1etik 7ra bitarteko kapituluetak datuetan oinarrituta egindako kalkuluak eta egindako doikuntzak, kontabilitate nazionalari dagokionez, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

2023ko ekitaldirako, aurrekontu-likidazioaren ebaluazioaren emaitza 3/2022 Foru Dekretuan araututako defizitaren xedea ez betetzea denean, *“toki-erakundeek plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartu beharko dute, plan hori epe luzearako kudeaketa- eta plangintza-tresna izan dadin, baina haren betetze-mailak ez du neurri gehigarriak hartzeko betebeharririk ekarriko”* (3/2022 Foru Dekretuaren 1. artikulua).

C) Kalkulu-metodoa

Aurrekontu Orokorra osatzen duten erakundeak aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta daudenez, aurrekontu-egonkortasuna ondorioztatzen da diru-sarreraren Aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura eta Gastuen Aurrekontuko 1. kapitulutik 7.era arteko zenbatekoen arteko diferentziatik.

Kodea	CL22/17986	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./06	CUDO	000.0055.AAAAXBHF.C.H8Qx
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXBHF.C.H8Qx		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp. kodea: 2022DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2022/11/30

Horren arabera, aurrekontu-egonkortasunaren kalkuluak honako hauek dira:

Kapitulua	Deskribapena	Urtea	Hasierako aurr.
1	Pertsonal gastuak	2023	12.864.902,27
2	Ondasunak eta zerbitzuak	2023	14.051.252,92
3	Interesak	2023	25.000,00
4	Transferentzia arruntak	2023	5.179.823,90
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	2023	318.963,14
6	Inbertsioak	2023	6.159.545,00
7	Kapital transferentziak	2023	967.258,41
			39.566.745,64

Kapitulua	Deskribapena	Urtea	Hasierako aurr.
1	Zuzeneko zergak	2023	6.805.000,00
2	Zeharkako zergak	2023	1.000.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	2023	8.127.600,00
4	Transferentzia arruntak	2023	19.532.189,17
5	Ondare sarrerak	2023	284.210,00
6	Inbertsio errealean inorenganatzea	2023	1.751.100,00
7	Kapital transferentziak	2023	2.066.646,47
			39.566.745,64

Finantzazio ez-finantzarioaren soberakina edo defizita

0,00

Arrasateko Udalak defizit-helburua betetzen du 2023ko ekitaldirako aurrekontua 0ko KES terminoetan aurkeztean. Ulertzen da, orain arteko irizpideari jarraikiz, KES doikuntzak ez direla esanguratsuak.

Hala ere, gogoratu behar da 3/2022 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako toki-erakundeen arau fiskalak etenda daudela, eta 2023rako bakarrik. Horrek esan nahi du aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak indarrik gabe utzi behar direla, eta ez dela gastu-araua aplikatu behar urte horretan.

Aurrekontu-egonkortasunari dagokionez, 3/2022 Foru Dekretuaren 2. artikulua ezartzen duenez, "Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei berari esleitutako defizit-helburuaren % 40 lagako die. (...) "horretarako, udalen banakako defizit-helburua lehen adierazitako defizit globala Udal Finantzaletarako Foru Funtsearen kuoten proportzio berean banatuz zehaztuko da". Arrasateko Udalarik 323.134 euroko defizita egokituko litzaioke. Udalak ez du defizitik 2023ko ekitaldirako.

Kodea	CL22/17986	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2022/abe./06	CUDO	000.0055.AAAAXBHF.C.H8Qx	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXBHF.C.H8Qx			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp. kodea: 2022DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2022/11/30

II. Gastu-araua

1/2013 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“Gipuzkoako toki-erakunde bakoitzeko gastu konputagarriaren aldaketa, urte bakoitzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan erabakitakoari egokituko zaio.”*

3/2022 Foru Dekretuak lehenengo artikuluan ezartzen duenez, *“Gipuzkoako toki-erakundeen arau fiskalak etenda geratzen dira, 2023rako aparteko ondorioekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak indarririk gabe utzi behar direla, eta ez dela gastu-araua aplikatu behar urte borretan.”*

III. Zorraren muga betetzea

Zor publikoaren mugari dagokionez, 3/2022 Foru Dekretuaren 1. artikulua ezartzen du indarririk gabe utziko dela 2023ko ekitaldirako zor publikoaren helburua, 3/2022 Foru Dekretuaren 2.5 artikuluan hurrengo xedatzen du: *“Gipuzkoako toki-erakundeen epe luzeko zorpetzea koherentea izango da ekitaldi bakoitzeko onartutako defizit-helburuarekin”.*

Arrasateko Udalaren 2023ko ekitaldirako aurrekontuak ez du inolako zorrik aurreikusten.

Ondorioa:

Arrasateko Udalaren 2023ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuak ez du defizitik, ezta epe luzeko zorpetzerik ere. Gastua % 5,09 handitu da 2022ko hasierako aurreikuspenekin alderatuta.

Behin-behineko kontu-hartzailea

Kodea	CL22/17986	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/abe./06	CUDO	000.0055.AAAAXBHF.C.H8Qx
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXBHF.C.H8Qx		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

